

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko ekainaren 14a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Uharte • Herriko neska-mutikoen lanekin horma-pintura osatu dute Patxi Buldainen omenez • 3

Koldo Aldai • «Aralarko zirkulua abian jarri nahi izan dugu Eubi - Hegoa mugimenduari» • 7

Jaiak

• LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS



desmuntatzen

Jaiak muntatzen hasi aurretik jaiak desmuntatzeko zaletasuna hartu du Iruñeko Udalak. Duela bi urte Arrotxapean egin zuen. Maiatzaren bukaeran Arrosadian egin zuen. Eta orain, sanferminetako barraka politikoen txanda etorri da. Hasieran, Yanguas y Miranda aparkalekutik kanpora atera nahi izan zituen Udalak. Baina horretan arrakastarik izan ez zuenez, beste bide batetik jo zuen: herri kolektiboek nekez bete ditzaketen baldintza zorrotzak ezarri ditu.

Baztan ●


Magnesita harrobia Erdizen



Erdizko inguru paregabea, Baztanen. ● EGUNKARIA

Rouiller eta Magnesite Grecian multinazionalena den Magna enpresak zundaketak egin ditu Erdizen

Rouiller eta Magnesite Grecianena den Magna enpresak Zubiriko harrobia agortu hurren du. Harrobia ustiatzen jarraitzeko zundaketak egin ditu Erdizen, duen balio ekologikoarengatik Komunitatearendako Toki Garrantzitsu izena duen inguruan.



MAGNAKO KONTSEILARI ORdez kari den Dominique Bamasen arabera, Zubiriko magnesita harrobia agortu hurren dute; hortaz, urte bat edo biren buruko, beste harrobi batekin hasi nahiko lukete. Eginahal horri buruz Erdizen zundaketak egin berri dituzte. Erdizen Aldeko Batzarreko Luis Bidegainen arabera, ez da harritzekoa Erdizen zundaketak egin izana; izan ere, «orain hogeitau urte enpresa berak 'ikerkuntza' zundaketak egin zituen toki berean; eta hortik eta bertze zenbait neurketatik erdietsitako datuen arabera, Erdizen harrobia ustiatzeko 20 milioi tona egoten ahal zela erakutsi zuten, eta hori baieztatu nahi dute».

Erdizko zundaketek eta balizko harrobiak kezka eta ezinegona sortu dute herritarren artean; horren adierazgarri dugu Erdizen Aldeko Batzarren sortzea. Erdizek duen balio ekologikoarengatik Komunitatearendako Toki Garrantzitsu izendapena du, eta Baztango herri-bazkatorik handiena da. Iruritako erreka deiturikoan dagoen goimendi ingurua da, Kintoarekin mugan. Bidegainen erranetan, «harrobia zerbait baldin bada, toki baten desagertze fisikoa da, baina horrekin batean inguruen hondatzea: Iruritako erreka, Kintoa...». Aurten Baztango nekazariak 500 behi buru inguru

eraman dituzte Erdizko larreetara.

Magnaren jabe diren Rouiller eta Magnesite Grecian multinazionalak beharrezkoa dute magnesita lehengaiak. Rouillerrek Zubiriko lehengaiekin hornitzen du ongari kimikoak ekoizten dituen Lodosako Inabonos lantegia. Luis Bidegainen hitzetan, «multinazional hauekin erne ibili beharra dago, etekin ekonomikoa bertzerik ez baitute bilatzen. Ez da atzentzen ahal Rouillerena

den Lodosako Inabonos salaketa paratu ziola Gurelur elkarteak, Lodosako lur eta ur-putzuak gizakiarendako kaltegarriak diren gai kimikoekin kutsatzeagatik».

Magnak oraino ez du harrobia egiteko baimenik galdegin, eta eskatzen duelarik, azken hitza Baztango Batzar Nagusiak izanen du. Luisen erranetan, «Batzar Nagusiak nola jokatu duen ikuskizun dago; apirilko batzarrean, harrobiaren kontra agertzeko aurkeztu genuen idatzia ez tratatzea erabaki zuten».

Zundaketak egiteko ireki ziren pistak ere zer erran ematen ari dira hondarreko aldirian. Zeren zundaketak (pistak, lurberdintzeak...) ingurumenaren eragin txostenari lotuak ziren, eta, horren arabera, irekitako pistak lehengoratu behar dira; baina Batzar Nagusiak pista tartebat irekita utzi nahi du.

→ Joseba Otondo

Larraun ● Larraun bailarako eguna

Asteburu berezia izanen dute hau Larraun eta Lekunberriko herritarrek. Izan ere, hogeita bost bat urte pasatu dira Larraun bailarako eguna azkenekoz ospatu zenetik.

Bi herrietako biztanleen arteko harremanak bultzatzeko asmoz, Larraungo bikote batek Udaleria jo zuen ospakizun hau berreskura ote zitekeen proposatuz. Baietza jaso ostean, Larraun bailarako eta Lekunberriko zenbait lagunek lanari ekin zioten duela hilabete pare bat.

Egitaraua Gorritin hasiko da bihar, bertan haurrentzako pailazoak eta txokolate jateko antolatuta baita, arratsaldeko seietan.

Igandean, goizeko bederatzietan, Larraun bailarako karrikak txistularien doinuaz beteko dira. Hamaika eta erdietan, Nafarroako Herri Kirolen Federazioak ekitaldi berezi bat eskainiko du, non txingak, trontzalariak, sokatira eta abarrak ikusi ahal izanen diren.

Bazkaldu aurretik, Iruña izeneko taldeak dantza egingen du Lekunberriko plazan, eta ordu bi eta erdietan, ederki bazkaltzeko parada izanen da pilotalekuan. Hemezortzi euroren truke, paella, urdaiazpikoa, haragia saltsan, tarta eta kafea bazkalduko dute bertara hurbiltzen direnek. Bazkarirako azkeneko txartelak tabernetan eta banketxeetan eros daitezke.

Bazkalosteko protagonistak bertsolariak izanen dira, pilotalekuan bertan Nafarroako txapelkun Amets Arzallus eta Jokin Sorozabal bertsoan arituko baitira, jaiari akabera emanez.

→ Estibalitz Ortega

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Erresuma Basa honetan sortutako askok uste dute hemen laketu garen gipuztoko Barojaren pasadizo hura kontatzea gustatzen zaigula tarteka. Bai, horixe bera, pensamiento eta navarro-arena. Ez dut ukatuko nik ere bizpahiru aldiz kontatu dudala, baina ezagunegia bihurtu da, eta azken aldian honetan, gainera, istorio triste-egia iruditzen zait, tristea baita zirikatzen hasi eta erantzunik ez jasotzea, purrustadaren bat entzun beharrean pesalunbreak eta etsipenak jotako aurpegiak ikustea. Garaipen erraz batek ezin du erdi normala den inor ase. Eta, pixka batean pentsatuz gero, zer da Barojarena edozein egunetan komunikabideetan agertzen diren beste batzuen aldean? Zertarako behar dut Barojarena jakinik, konparazio batera, orain dela hiru bat aste marko erakusketa bat inauguratu zutela Iruñean? Bai, markoak, normalean bastidorea babesteko eta edertzeko jartzen diren horiek. Ez duela graziarik? Ziur

Markoak

aski ez. Sarkasmoak gubxitan izaten du. Non zauden, betiere. Metafora zaleek badute puska baterako gaia. Ergel entrenatuak, berriz ere, ostatuko demokraziaren aldeko adierazpenak egingen ditu: «Denetik izan behar da, eta guztiek berea merezi dute». Nafar nekatuak sentituko du beste ehun gramoko gehitu dizkiotela aspaldian bizkarrean metatzen joan zaion zamari.

Jakina, baikorrak ere beti agertzen dira. Baikorrak joera du pentsatzeko proposamen surrealista bat ikusteko aukera eskaintzen diotela, probokazio interesgarri eta pizgarri bat izan daitekeela, aspaldiko Iruñeko Topaketa haien jarraipen naturala, performance-aren lehengusu propioa.

Egiazko hotzikarak, ordea, markoa baino ikusten ez dutenek eragiten dute. Antolatzaile horiek, ikusle horiek ez dute beste ezeren beharrik, eta beti aterako zaizkizu horrelako «gauza kultural eta originalen» alde, ez dagoenaren bila ibili gabe.

Jakina da gipuztako krudelak garelako batzuetan, lixiba botatzen dugula erreketan amuarrainak harrapatzearen, baina ez gara sadiakoak, guk nafarrei ez genien inoiz marko erakusketa bat ekarriko. Nafarrak akabatu du nafarra.

Luze gabe, ordea, nafarren bat ohartuko da marko bat marko bat dela eta erdian ez dagoela deus, eta nafar horrek berak kontatuko ditu Barojarenak eta beste asko. Berandu baino lehen egin beharko du, koadroaren erdian Amadeo Markoren aurpegia batera lausorik gabe agertu baino lehen. Gizon oso-oso Amadeo Marko. Biziki maite zuen bere zakurra.

Uharteko omenaldia Patxi Buldaini

Virgen Blanca ikastetxeko ikasleek egindako horma-pintura zintzilikatu dute Ferial plazan



Uharteko 261 neska-mutikoren lanekin horma-pintura osatu dute Patxi Buldain artistaren omenez. ● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Uharteko Virgen Blanca ikastetxeko ikasleek horma-pintura bat egin dute Patxi Buldain herriko artistaren omenez. 261 neska-mutikok parte hartu dute, margo banarekin. Agarraberes arduratu da guztiak bildu eta horma-pintura osatzeaz.

U HARTEKO UDALAK PATXI Buldainen omenez antolatatu zikloaren baitako ekimena da herriko ikastetxeko haurrek egindako horma-pintura. Buldain artista askoren maisu izan da hainbat urtez zuzendu dituen tailerretan, eta haurrekin ere egin izan du lan. Horregatik, Buldainen ikasle izandako Koldo Agarraberesek Virgen Blanca ikastetxeko ikasleak hautatu ditu Buldaini omenaldi bero eta berezia egiteko. «Haurrek ez dute mugarik, nahi dutena egiten dute, inolako aurreiritzirik gabe; Buldain ere horrelakoa da, nolabait», azpimarratu zuen Agarraberesek proiektuaren aurkezpenan.

Asteartean, proiektua amaitu ondoren, «pozik» zen artista, eta espero zuen guztia bete dela nabarmendu zuen. «Haurrek ez dute huts egin; askatasun osoz aritu dira eta emaitza oso interesgarria izan da», azaldu zuen. Haurrekin lanean jarraitzeko asmoa agertu zuen artistak, Virgen Blancako ikasleekin izandako esperientziak bultzatuta.

Haurrek nahi izan duten gai

landu dute, baina Agarraberesek erran zuen nabaritu dela Buldainen eragina emaitzan. Izan ere, proiektuaren helburua ez da horma-pintura egitea bakarrik. «Aitzakia izan da Buldainen obra gehiago ezagutzeko». Agarraberesek Buldainen obrak erakutsi dizkie haurrei, eta ikusitakoak eragina izan duela azpimarratu zuen obraren inaugurazioan:

«Kolore biziko horma-pintura da, Buldainen obra bezalakoa».

Buldain eta haurrak, pozik

Horma-pintura inauguratzeko ekitaldian Patxi Buldainek parte hartu zuen, eta harekin batera, obra egin duten haurrak izan ziren protagonista. Poz-pozik ziren denak, haiek egindako margoen ondoan. «Identifikatu egi-

ten dira pinturarekin eta hori da hoberena», azaldu zuen Agarraberesek. Buldain ere kontent zen haurren artean: «Oso gauza polita da. Haurrak bereziak dira, eta artea ulertzeko eta bizi-zeko oso modu berezia dute».

Haurrei dagokienez, proiektuan erabat murgildu ziren duela hilabete inguru, eta asteartean pozik agertu ziren eurek egindako horma-pintura zintzi-

likatuta ikustean. Haien artean zen Txomin; Buldainen obra ez zuela ezagutzen aitortu zigun, baina proiektuak iraun duen bitartean lan horiek ikusteko aukera izan duela gaineratu zuen. «Gustatzen zaizkit», erran zigun. Berak horma-pinturan jartzeko egindako obra zen, ordea, gustukoena zuena.

→ Edurne Elizondo

Doneztebe

Musika eskola berria, Agorreta

AGORRETA, DONEZTEBEKO MUSIKA ESKOLA BERRIA, igandean inauguratuko du. Orain arte, eskola publikoaren egoitzan zegoen musika eskola. Baina hurrengo ikasturteetik aitzinera, zinematokiaren egoitzan izanen da, horretarako Doneztebe Udalak egokitu duen lehengo liburutegian. Musika eskola berriak Agorreta izena izanen du.

Inaugurazioa dela eta, musika eskolak besta bat antolatu du iganderako. Besta horretan, musika eskolatik pasatu den jende kopuru handiena bildu nahi dute bestako antolatzailerekin eta helburu horrekin kalejira eder bat egiten dute igande goizean, ahalik eta ikasle

ohi gehienak bilduz. Goizeko hamaiketan abiatuko da kalejira. 12:30ean, eskolaren inaugurazio ekitaldi ofiziala egiten dute. Ondotik, ikasleen kontzertua eta herri bazkaria izanen da ordu bietan.

Musika eskola abiatu zuten inguruko herrietako apaizak bestan izanen dira, beraiek izan baitziren Malerrekana musikaren ezagutza zabaltzen hasi zirenak, duela 25 urte.

Inaugurazioaz landara; erran beharrekoa da Doneztebe, Altsasu, Leitza eta Lekarozko musika eskoletako ikasleak elkarrekin eskaintzen ari diren kontzertuak aipatutako azken bi herrietara ailegatuko direla gaur eta

astelehenean, hurrenez hurren. Kontzertu hauetan lau herrietatik etorritako 450 bat ikasle biltzen dira, ikasturtean landu eta ikasitakoa jendaurrean eskaintzeko. Leitza kontzertua gaur izanen da, 17:30ean, frontoian. Lekarozkoa, berriz, astelehenean izanen da, 17:30ean, kiroldegian.

Kantutegiari dagokionez, denetarik entzuteko aukera izanen da: musika klasikoa, bertako dantzak, herri musika, rocka... Hori guziaz, hitzean eta mugimenduan oinarrituriko koreografiak inguratuz.

→ Asier Azpilikueta



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Import-export

Igandean Garesen bazkaldu genuen. Gero kotxez landa-bide bat hartu eta kilometro bat egin ondotik, kotxea bazterrean utzi eta paseatzera joan ginen. Jertsea gerrian jartzen ari nintzenean, arratsaldea, Gareskoa baino gehiago, Gaztelatik ekarria zutela konturatu nintzen: giroa, temperatura, eltxoen soinua, gariaren gainean erortzen zen argia, haize nagi hura... arratsalde gaztelarrek dituzten osagai guztiak hantxe zeuden. «Laostia, garestarrak!», pentsatu nuen. «Ze axolagabekeria! Bazuten beraiena egitea eta ez inportatzea!», eta lagunarengana jiratu eta hauxe aipatu behar nionean... «A ze arratsalde polita Gareskoa, ezta?», bota zuen berak.

Beraz, ni mutu. Zertarako dezepzionatu? Zertarako nabaritu iruzurra, nafar-labelik gabeko arratsaldea zela hura? Zertarako? Deusetarako. Beraz, ni mutu. Gero lagunak garagarren eta gariaren arteko diferentziak azaldu zizkidan, eta nola bata bizarra duen eta besteak ez; eta loreak direla esan zidan, batzuk ernaldu gabekak, besteak ernaldutak, eta badirela gari eta garagar mota diferenteak, lore gutxiak, zurtoin altuagoak dituztenak... eta hau guztia arratsalde gaztelarreko gari eta garagar gaztelarrek eskuan aletzen zutela esan zidan, eta niri pena pixka bat eman zidan, zeren Garesko gariak ari zela sinetsita baitzegoen, «baina tira», pentsatu nuen, «Gareskoa izanda ere, antzekoa izango zen!».

Dena den, laguna zelai horixkez eta hezetasunaz ari zen bitartean, Nafarroa gero eta gauza zakarra goa iruditzen zaidala otu zitzaidan: per capita errenta altuena; Duplex eta 4x4-ak; Kolonbiako, Peruko edo Ekuadorko langileak, neska-meak; prostituta inportatuak... Volkswageneko esportazioei esker diote askok. Eskerrak Volkswageni!!!, dirua, money, dinero, Urrezko Txekorra, zertarako eta arratsaldeak berak inportatzeko!

Ordurako, ilunabarrean geunden sartuak, (hura bai Garesko ilunabar freskoa eta benetakoa!), eta jertseak jarri behar izan genituen. Zeruko argi falta hartan, ilargia nabarmentzen hasia zen, eta berarekin, nire hurrengo harridura: ilargi hura, bai hura bera!, ikusia bainuen iaz Almerian. Almeriako ilargia inportatzea ere!!! Lagunarengana jiratu eta iruzurra aipatu behar nionean... «Ze largi ederra!», esan zuen berak. Beraz... ni mutu ●

Uztailean berroa egunen du

Barraka politikoei ezarri dizkieten baldintza zorrotzek hautsak harrotu dituzte Iruñean

22 egun falta dira sanferminetako txupinazoak Iruñeko zerua gorritz estal dezan. Urtero gertatzen den gisara, hainbat gertaerak gainera datorkiguna gogorarazi, eta giroa berotzen hasten da: Sarasate pasealekuan Tonbola paratzen dute, entzierroko lehen hesiak jartzen dituzte, pare bat liburu aurkezten dute, webgune berria abiatzen dute... Aurten, barraka politikoen aferak inoiz baino gehiago berotu du sanferminaurrea.

EUSKAL HERRIKO EDOZEIN TXOKOTAN txosna izena dutenak *barraka politiko* dira Iruñean. 1976tik hona, etenik gabe antolatuta da jaigune alternatibo hau. Antoniutti parke ondoko errepidean izan ziren lehen. Gero, Takonerako Basotxoan, harik eta Alfredo Jaime alkateak handik bidali zituen arte. Eta azken bederatzirteetan Yanguas y Mirandako aparkalekuan paratu dituzte. Orain arte ez da arazo handirik izan.

txostena lortu, eta ikusi zuten kata arkeologikoa bi asteko kontua zela. Sinadurak biltzeari ekin zioten -3.000 baino gehiago lortu zituzten ordu gutitan- eta leku aldatzearen kontrako klima sortzen hasi zen. Kata arkeologikoen aitzakiak ez hanka eta ez buru ez zuela ikusita edo, Udalak atzera egin zuen.

Maiatzaren 23an, barraketako kolektibok eskaera sartu zuten udal erregistroan urtero bezala. Ondoren, Yolanda Barcina alkateak erran zuen baietz, barrakak Yanguas y Mirandako jarriko zirela, baina hura «nahaste-borrastea» zela, «taifen erreinua», inork ez zuela kontrolatzen eta baldintza batzuk jarri behar zirela.

Bitartean, maiatzaren azken asteburuan, Arrosadiako jaiak ia bertan behera gelditu ziren. Udalak diru laguntza murriztu, hitzarmen bidezko taldeen kopurua ttituki, eta

txosnak betiko lekuan jartzea debekatu zuen. Auzokideak txosnak jartzen saiatu ziren, baina udal langileek kendu egin zituzten, Espainiako Polizia eta Udaltzaingoa lagun zuzen. Hala ere, duela bi urte Arrotxapean gertatu zenaz bestaldera, nola edo hala jaiak inoiz segitu zuten.

Baldintza zorrotzak

Barraken auzira itzuliz, Yanguas y Mirandako barrakak jartzeko baldintzen plegua argitaratu zuten iragan ostiralean. Udalak lehiaketa publikora ateratu dituen guneak, eta baldintza hagitik zorrotzak ezarri ditu, barraka politikoen nolokotasuna kontuan hartuz gero. Pasa den asteartean udal ordezkariak eta Barraken Batzordeko ordezkariak bilera egin zuten baldintzen inguruan. Funtsean, udal ordezkariak erran zuten horiek zirela baldintzak eta bete egin behar zirela. Eta kito. Barraken Batzordeko kide Iñigo Rudik «zentsuragabe eta negargarritzat» jo du bilera hori; baita auzia «geroz eta okerrago» dagoela adierazi ere.

Herenegun —lerrook idatzi ostean— Udalarekin biltzekoak ziren berri eta gaurko prentsaurrekoa egitea espero zuten. Rudik azaldu du orain arte ez dutela Udalarekin batere arazorik izan. «Urtero hitz egiten genduen behar zen pertsonarekin. Eta sortzen ahal ziren arazo guztiak elkarrekin konpontzen genituen elkarriketa bidez. Orain, ordea, Babes Zibilek txosten bat egin du non erraten baitu Barraken Batzordea ez dela existitzen inongo erregistroan ez dagoelako. Barcinak erran zuen ez zutela barraken esparrua kontrolatu nahi, baizik eta ordena jarri. Baina txosten horretan behin eta berriz agertzen da kontrol hitza. Hori baita nahi dutena, espazio hori kontrolatzen du.

Udalak ezarritako baldintzek arazo ugari sortuko dituzte. «Arazoetan lehena epeei dagokiena da», azaldu du Rudik. «Eskaearak aurkezteko epea ekainaren 20an akituko da. Horiek hilaren 25erako erantzuten badituzte, astebeteko epea izanen dugu denbena antolatzeko. Izan ere, inor ez da


Erdigunetik kanpora atera nahi zituzten

Maiatzaren erdialdera hasi zen iskanbila. Iruñeko Udalak iragarri zuen barrakak Arrosadia bazter auzoko Plan Sur orubera eraman nahi zituela. Izan ere, Yanguas y Mirandako autobus geltoki berria egin behar dute eta lanak hasi aitzin kata arkeologikoa egin behar omen zituzten. Barraken Batzordea mugitzen hasi zen orduan. Lanen

Barrakak jartzeko baldintzak

Iruñeko Udaleko Babes Zibileko atalak makina bat baldintza ezarri du Yanguas y Mirandako aparkalekuan sanferminetan jartzen diren alderdi politiko, sindikatu, gobernu kanpoko erakunde, kultur elkartea eta beste halakoen barrakak arautzeko:

- * Gehienez ere 22 barraka jartzen ahal dira.
- * Barrakak 9x3 metro neurria izanen dute.
- * Krokisean adierazten den modura paratu beharko dira barrakak (ikus krokisa).
- * Barrakak izateko baimena uztailearen 4tik 15era artekoa da.
- * Orduetgia: 12:00 - 06:00.
- * Soinu emisioa ez da 80 dezibeliokoa baino altuagoa izanen.
- * Baimenak antzinatasunaren arabera emanen dira. Hortaz, lehentasuna izanen dute urte gehiago daramatzaten barrakak jartzen. Leku kopurua baino eskatzaile gehiago izatekotan, zozketa egingen da.
- * Eskatzaileak pertsona juridikoak izanen dira, beharrezko erregistroetan legez izena emana dutenak.
- * Barraka bakoitzeko adjudikazio-dunak: - 3.000 euroko bermea ordainduko du.



Iñigo Rudi

BARRAKEN BATZORDEKO KIDEA



LANDER F. ARGOIABE / ARGAZKI PRESS

«Beren kontrolpetik at dagoen jaigunea suntsitu nahi dute»

BATZARRE ALDERDIK BARRAKEN BATZORDEAN duen ordezkaria da Iñigo Rudi. Aurten berari egokitu zaio Udalarri egin beharreko eskaerak bere izenean egitea. Gainera, afera honetan guzian Batzordearen bozeramaile lanak egin ditu. Hala ere, argi utzi nahi du datozten erantzunetan bere izenean hitz egin duela soilik.

■ Hasieran, barrakak hirigunetik kanpora eramaten saiatu da Udala. Gero, arau ezin zorrotzagoak ezarri ditu. Zertara dator hau guziaz?

Herri mugimenduaren aurkako nekarazte eta eraiste erasoaren baitan dago barraka politikoekin gertatzen ari dena. Udalak duela bi urte hasi zuen ildo hau, Arrotxapeko jaiak bertan behera gelditu zirenean. UPNri ez zaizkio organismo herrikoiak gustatzen, bere kontrolpetik kanpo daudelako. Auzoetako jaiak, kultur elkarteak, gazte prebentziokoak... Isunak jarri dituzte, tasak izugarri igo, diru laguntzak murriztu, barrakak eta agertokiak desmuntatu. Orain, sanferminetako barrakei tokatu zaie. Baina barrakekin zailagoa izanen dute, sanferminetako gauza ez ari garelako. Jendea ez da ergela eta ikusten du tentsioa sortzea ez dela ona. Barrakak 26 urtez egon dira modu batean lan egiten. Ongi dago gaizki dagoena zuzentzea, baina ezin da listoa jarri inork gaindituko ez duen tokian. Horrek tentsioa besterik ez du sortzen, horretarako batere beharrik ez dagoenean.

■ Zergatik egin dute orduan?

Erabat sustraiturik dagoen jaigune hau ez zaie gustatzen, bere kontrolpetik kanpo dagoelako. Herriarrik modu librean joaten dira Udalak eskaintzen dituen gauzetatik kanpo jaigunera. Eta hori herriar askoren dibertitzeko eskubidea kentzea litzateke. Jai eredu oso elitista baterantz eraman nahi gaituzte. Aurrekoan entzun nuen David Bisbal kantaria ekarri nahi dutela kontzertu bat ematera. Oso ongi, ekar dezatela, baina horrek ematen duen irudia ez da Iruñearen osotasunarena. Herriar guziei eman behar zaie lekua. Aurkaritzaren bidea hartu dute eta horrek ez du inor laguntzen. Tentsioak, ziurgabetasuna, liskarrak, prentsaurrekoak... Hau guziaz saihesten ahal zen. Utz dezatela orain arte egin den moduan egiten, iazko baldintzekin negoziatzea ezagun eta hobe dezagun gaizki dagoena. Hori da data hauetan eska daitekeen gauzarik zentzuzkoena.

→ Asier Azpilikueta



JULIE

lehenagotik gauzak erosten eta kontratatzen ibiliko, kanpoan gelditzeko arriskua dagoenean».

Udalak egingen du banaketa

Yolanda Barcina alkateak barraketan ordenarik ez zegoela erran zuen une berean, salaketa gogorra egin zuen Markos Erro Batasuneko zinegotziaren aurka iaz barraketako banaketa «modu arbitrarioan» egiteagatik. Izan ere, iaz Markos Errori egokitu zitzaion izena ematea Udalaren aitzinean; aurten, Batzarreko Iñigo Rudiri tokatu zaion bezala. «Banaketa modua ez zen arbitrarioa», aipatu du Rudik. «Oso sinplea zen, garbia eta gardena. 22 barraka muntatzen ahal dira; baina barraketan dauden kolektiboak gehiago dira, berrogei bat. Hortaz, nolabaiteko banaketa egin behar da. Antzinatasunaren arabera egiten da hori. Urtero bajak izaten dira, baina baita altak ere. Sartu nahi dutenak ateraren baino gehiago badira, kolektibo horien arteko elkar ulertzea bilatzen da; eta hori ez badago, zozketa. Barrakak muntatuko dituzten kolektiboen zerrenda osatuta dagoenean, kokalekuak zozketaz banatzen dira».

Aurtengo banaketa lehiaketa publiko bidezkoa da, baina ez da zahzten nola egingen den. Argi dagoena da Udalak kudeatuko duela banaketa hori. Hortaz, orain arte

Faltak

BABES ZIBILEKO ATALAK BARRAKAK JARTZEKO BALDINTZAK ezarri dituen modu bertsuan, haietako batzuetatik aplika ditzakeen zigorrak ere zehaztu ditu. Hala, falta oso larritzat joko du barrakaren instalazioa edo instalazio hasiera egokitutako lekutik kanpo egitea; titularrak aldatzea edo eskualdatzea; elektrizitate, ur edo saneamendu hartunea ez izatea; edaria beirazko basoetan ematea; edota gozoak saltzea. Falta oso larriak egiteagatik, zigor moduan bermea kendu, barraka desmuntatu, edota 1.502 euro arteko isuna jar dezakete.

Falta larriak izanen dira, adibidez, jaki-erabiltzaileen txartela ez izatea eta ingurua ez garbitzea. Kasu honetan, bermearen %60 den dezakete, edota 901 euro arteko isuna jarri.

Azkenik, falta arin bezala hartuko dute osasun baldintzak ez betetzea. 450 euro arteko isuna jar dezakete horregatik.

barraketan sartzeko atea Barraken Batzordea bazen, orain Udalak beteko du rol hori.

Zaila da baldintza guztiak betetzea

Baldintza berriekin, barrakak diruzta gastatu beharko dute berme, aseguru eta tasetan; herri kolektibo batek nekez izanen duen dokumentazioa lortu beharko dute; eta eguneroko jardunean arreta handiz ibili beharko dute ezarritako neurri zorrotzak ez hausteko. «Nik uste dut kolektibo guzian artean bakar batek ere ez dituela betetzen eskatzen diren baldintza guztiak», gaineratu du Rudik. «Horregatik, deigarria da bermea ezartzearena. Ematen du badakitela leku askotatik harrapatzen ahal gaituztela, eta berme horretatik hartzen joanen direla. Barrakak jartzen direnetik, uste dut ez dela zigor administratibo bakar bat ere egon. Zergatik jarri dute orain zigor erregimen bat, orain arte problemarik egon ez bada?».


Barraken auziak ez du batere itxura onik eta animoak berotzen hasiak dira iruindarren artean. Txupinazoak jartzeko ardua Batasunari kentzeak ere ez du animo horiek baretzen lagundu. Asteburu honetan, auzoko jaiak ospatuko dituzte Arrotxapean. Jaigiroa nagusituko ote da?



Soberanismoa

Herri bat, kirol bat. Mus partida ohi baino gehiago luzatu zen eta, hartara, ohi baino kuba-libre gehiago edan nituen. Gainera, Samuelen iloba Ricardok bere osaba zuhurrak baino dezente gehiago kargatzen ditu kuba libreak —egunotan Ricardo ari da Monte Carlon zerbitzari lanetan, Samuel, eguraldi aldaketen poderioz, nonbait, gaixo dagoelako—. Bestalde, hamar bat egun generamatzan Unzuko kirol saileko saltzaileak, gure mus partidetako ohiko aurkariak, behin ere garaitu gabe. Halere, nago horren guztiaren ondorioa baino, operacion-triunfismo, camachismo oldearen kalte kolateralak izan zela. Aspaldi itzali ziren nigan sugar gorri berde zuriak. Alta, horren guztiaren poderioz, erraiak gutxienez epelzen hasi zaizkit. Kontua da Gerardo mus bikotekide bikruzifera baino baskoagoak, ohitura zaharrei jarraiki, partida irabazi eta berehala kantuari ekin ziolarik berarekin bat egin nuela: «Non hago, zer larretan...».

Herri bat, psikologia bat. Sorbaldatik elkarri helduta, ahots zoragarri bitan, **Erramun Martikorenaren** estilorik onenean kantuan hasi eta berehala, baina, Ricardok, begitartea zurbil, begirada gorrituta, «Ez, mesedez, berriz ez» egin zuen txilio, **Maria Ostizen** kontzertu bateko bisak derrigortuta entzuten ariko balitz bezala. Mutil isila da Ricardo, isil eta jatorra. Horregatik guztiz harritu gintuen haren jarrearak. Inoiz Gerardo temoso jarri zaio **Benito Lertxundi, Mikel Laboa** eta



Erramun Martikorena, Erraldioen Txokoan.



Maria Ostiz kantariaren disko baten azala.

Pantxoa eta Pellon oinarritu bere errepertorio errepikakorra abestuz, baina halakoetan Ricardok, **Vicente Madozek** baino psikologia gehiagoz, urteetan Iruñeko Zabalgunean PTV mordoarekin lan eginez pilatu jakindurian oinarrituta osabak irakatsi metodoa erabili du: «Gerardo, taberna honetan ez dago debekatuta abestea, baizik eta gaizki abestea, eta zu gaizki abesten ari zara».

Herri bat, folkloriko asko. Herri bat, beraz, harritu ginen harritu ginenez Ricardo guztiz aztoratuta

oihu batean ikusi genuelarik. Zer zuen galdetu genion. Hasieran zentzurik gabeko azalpenak eman zituen: «Ezin ditut frantsesak jasan», «Iruindarrak okerragoak dira», «A ze buruko mina»... Gero izen zenbait aipatu zituen: Kike, Asisko, Iñaki, Jean... Halako batean, EGUNKARIA honetan berean agendan irakurri oharra etorri zitzaidan burura: Zuberoako Jean Bordaxar eta bere lagun koadrila kantari, Erraldioen Txokoan. Ekitaldiaren ondotik, nonbait, Zabalgunean egin zuten afaria **Kike Diez de Ultzurrun** —orrialdekidea, bai—, **Asisko**

Urmeneta, Iñaki Azkona eta beste zenbait iruinsemerekin, eta kopa Monte Carlon hartu zuten, eta lehen koparen ondotik bigarren bat, eta kopen artean kantutxo bat, kantutxo bi... Ricardo erotu arte. Nago urretxindorrok bezala euskaldun guztiok —ez euskal herritar guztiok, ez baita gauza bera— azken boladan gero eta folklorikoago gabiltzala. Nago soberanismoaren ondorioa dela. Erran nahi baita Soberano brandyarekin loturiko mugimendu espainiarzalearena, ares-tian operacion-triunfismo edo camachismo deitu dudanarena.



panpilonia zirkus

Udaletxeko indioa

Ekainean aise da gau-pasa egitea, Arangurengo mendien zeru gainean goizeko 05:30erako lehen argi txinta agertzen baita. Ortzirale batez hasitako gau hark lau lagun adiskidetu zituen: bi iruindar soinu-lari eta Goi Aragoiko bi menditar, Dos Caballos-ari ITV pasatzera Iruñera etorriak.

Jarautako azken zuloa ixtearekin batera, soinu-tresnen bila etxeratu eta berriz karrikara itzulirik, han hasi ziren diana jole, eta halaxe sartu ziren autobus geltokiko kafetegian, taberna hura zenean atak irekitzen zituen lehena, gau-pasalarien paradisu. Gero, gehienek Patxi Rollosi egunkaria erosi eta lo egitera.

Gure laukote hori, ordea, ron karajillo eta kruasan bana hartu, eta berriz ere

alde zaharreko karrika freskoetan barneratu zen eguzkitik ihesi, Xalbador liburudendan sartu arte. Dendariak, hasieran, harrituta eta irri, baina, berehala kezkatu ziren, bereziki iritsi berrietako bat biltegi-gordeta zegoen tamaina handiko Olentzero panpinaz oharatu zenean, Egu-berrietan erakuslehoan paratzen dutena. Aragoiar bat ikazkinari heltzeko zorian zegoela, dendari buru azkarrak Ameriketako indio baten propagandako irudi handia eman zion, kartoiz egina. Irudi hura eramanik alde egin eta laukotea Santo Domingoko udal azokara iritsi zen.

Larunbat goiza izanik, duela hamabost urteko azoka hura animatua zegoen, pos-tu guztiak zabalik (ez orain bezala). Sal-

EGUNKARIA



Parrandazaleak Iruñeko udaletxe barruan.

tzaileek denetarik eskaini zieten: lukainka, txistorra, gazta, ardoa, gereziak... eta, hamarretako ederra eginik, Etxauriko gereziak belarrietan zintzilik, kanpora atera, udaletxeko atzeko atea ikusi eta zirt-zart hara joan ziren. Ateak zabalik, atarian udaltzainik ez, —pixa erreka egiten edo— igogailuan laurak sartu, zein botoi saktutuko eta bigarrena, hara igo, atak ireki

Enrike Diez de Ultzurrun

eta handik itxura ederrean atara ziren gure akordeoilaria, gure klarinete jolea, gure aragoiar kantariak, xanpaina eta indioaren irudia eskuetan, noiz eta pasabide zabal dotorearen alde batean alimaleko iskanbila gertatzen ari zenean, osoko bilkuraren atsedenean, peñen diru laguntzak zirela medio.

Alkate Chourraut, kolore guztietako zinegotziak, peñetako ordezkariak, —Txaro Pardo buru zelarrik—, udaltzainak, kazetariak, ... Ixtant batez, zalaparta barretu zen, denak zur eta lur, gure gazteei begira. Udaltzainek kanporatu zituzten. Cordobillako berripaperak erran zuen ez zegoela oso argi baina, gazteak —más ebrios que sobrios— indio—pankarta horren bidez, protestara joanak izanen zirela udaletxera, San Fermin aurreko giroa nahasteko asmoz.

Koldo Aldai


☉ EUBI-HEGOA MUGIMENDUKO KIDEA

soslaia

Koldo Aldai Donostian jaio zen 1960. urteko ekainaren 8an. Bere bizitzako azken hamar urteak, berriz, Estellerian eman ditu. «Lurralde ederra da hau, abegitsua, anitza, kultura ezberdinen topagune», erran du. «Gainera, naturaren indarra oso agerikoa da hemen».

Idaztea da bere lana. «Komunikabideetan bertze kontzientzia bat sortzeko xedearekin»; Mas alla, Año cero eta bertze aldizkari eta egunkarietan argitaratzen ditu bere idatziak. Halaber, www.portaldorado.com webgunea gaurkotzeaz arduratzen da.

Sortu berri den Alaba Fundazioko kide ere bada. Balore espiritualen alorrean lanean ari diren elkarte, mugimendu, talde eta erlijioen arteko hurbiltzea eta bategitea sustatu nahi du Fundazioak; horretarako, sareak sortzen ari dira, elkartzeko bidean.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«Aralarko zirkulua abian jarri nahi izan dugu»

Uztailaren 21ean, eguerdian, Aralarko Eubi-Hegoa trikuharrian 26 eguneko ibilbidea abiatuko dute, munduko eta Euskal Herriko bakea eskatzeko xedearekin. Erromesaldia isilean egingen dute. Koldo Aldai bertan izanen da.

GARI ZELAIK HORITZEN HASIAK dira leihoaren beste aldean. Allin ibarra zoragarri dago. Liburu eta aldizkari franko ditu pilatuta bere txokoan, eta idazteko ideia anitz buruan. Sarritan begiratzen dio Koldok paisaiari Zubielkiko bere etxetik.

■ **«Nire bakea bilatzen dut zurekin partekatzen». Hauxe da uztailaren 21ean abiatuko den ibilbidearen leloa.**

Bai. Egun dauden arazoan atzean bereizketa dago, eta, gure ustez, batasuna da arazo horiei aurre egiteko bidea. Gizaki guztiok gure zeregina dugu batasun hori lortzeko bidean, eta, alde horretatik, tradizio, mugimendu, erlijio eta talde guztiak elkartzeko ordua iritsi dela iritzi diogu. Batasun horrek askotarikoa izan behar du, eta aurki ailegatuko delakoan gaude. Illo horretan, aurreneko pausoa geure baitan eman behar dugu, gure barneko bakea bilatuz, gero bertzeekin partekatzen. Hortik dator erromesaldiaren leloa.

■ **Zein helburu du erromesaldiak?**

Tradizio, mugimendu, talde eta erlijioen bategitea sustatzea da helburu nagusia. Batasunaren aroa datorrela iragarri nahi dugu nolabait, eta ibilaldian zehar sortuko den anaiartekotasun giroaren lekukotasuna utzi zeharkatzen ditugun leku guztietan. Harrietan, zuhaitzetan, bideetan, herrixketan... leku orotan geldituko da giro horren itzala.

■ **Isilean eta oinez egingen duzue ibilbide osoa, ezta?**

Bai. Egunean 20 kilometroko ibilbidea egingen dugu, mendi eta ibarretan zehar, betiere, isilean. Isiltasuna topagunerako aterpea dela uste dugu, bategiteko lekua; eta, gainera, gure barnera begiratzeko aukera ematen digu isiltasunak. Barne bakea bilatu nahi badugu, ezinbertzekoa da isiltasuna. Alta, eguneko helmugara ailegatzeko, kantuaren bidez barreiatuko dugu isiltasunean bildu dugun bakerako energia. Isiltasunak eta soinuak duten indarrak jabetu gara, eta biez baliatu nahi izan dugu gure mezua zabaltzeko.

■ **Arratsaldean bertzelako ekitaldiak ere egingen dituzue herrietan?**

Tailerrak egingen ditugu parte hartzaileek proposatzen dituzten ekimenak partekatzen. Eguna amaitzeko, berriz, zirkulu bakar batean bilduko gara denak dantza eta otoitz egiteko. Zirkulua batasunaren oinarria da, elkartzeko tokia, amodioa garatzen den espazioa. Zirkuluak, nolabait, gure xede guztiak islatzen ditu.

■ **Nondik nora sortu zen ekimen hau egiteko ideia?**

1998. urteaz geroztik, Aralarren dagoen Eubi-Hegoa trikuharrian biltzen gara maiatzaren batean. Era askotako jendeak egiten dugu bat Aralarren xede bakarrekin: batasun sakonago baten irrika gauzatzea. Jende aunitzen baitan dagoen barne irrika hori islatzen du Aralarrek. Bertan, kantuak, dantzak, otoitzak eta meditazioa partekatzen ditugu, gure arteko berezitasunak islatzen dituzten harresiak hautsiz eta zirkulu bakar bat osatuz. Aurten 500 pertsona bildu gara. Gure hausnarketa, alde horretatik, oso sinplea izan da: hainbeste jenderen artean bat

egiteko nahi hori badago, goazen zerbait gehiago egitera. Horrela, Aralarko zirkulua abian jarri nahi izan dugu.

■ **Aralar izan da zuen aurreneko ekimenaren topagunea, eta orain ere Aralar izanen da ibilbidearen**

abiapuntu eta helmuga. Zergatik Aralar?

Leku berezia da oso; basajau-nak, jentilak eta lamiak daude Aralarren; eta jentilak «Kixki jaio duk, gureak egin dik» iragari

ri zuen moduan, guk, orain, gaur egungo jentilen moduan, Aralartik jaitziko gara gure mezua Euskal Herrian zehar barreiatzera.

■ **Euskal Herriko bakea ez ezik, mundu osoko bakea eskatzea ere bada ibilbidearen xedea?**

Bai, ekimena bertatik bertara gauzatuko da, baina gure nahia unibertsala da. Gu Euskal Herrian gaude, eta gure herriarekin dugu konpromisoa, baina baita bizitzarekin ere; beraz, gizateria guztiarekin dugu konpromisoa.

■ **Zuen ekimena guztiz irekia da, orduan?**

Gure ekimena bideetan gauzatzen da, eta isilean ibili nahi duen oro ongi etorria izanen da. Bidean eta isiltasunean denek bat egiten dugu, eta hortxe elkartuko gara parte hartu nahi duen pertsona ororekin.

■ **Izenik eman behar al da ekimenean parte hartzeko?**

Bazkariekin eta aterpeekin arazoak ez izateko nolabaiteko antolamendua beharrezkoa dela uste dugu. Horretarako, www.portaldorado.com webgunean kontaktuan jartzen ahal dira gurekin.

→ Kristina Berasain



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Piratak

Ez litzateke txorakeria handiegirik esatea gáztetan, edo gazteagoa nintzenezan, ikusitako film eta irakurritako liburu askok arrasto sakona utzi dutela gaur egun naizen gizaki defingaitz honetan. Burt Lancaster saltaria edo Emilio Salgariren pertsonaien abenturak, hortik etorriko zait piratekiko betidanik izan dudana miresmena. Edo, akaso, leinuan pixka bat arakatzu gero mundu osoko itsasoetan bere legea ezartzen zuen Agote betoker beldurgarri bat aurkituko genuke.

Jakin badakit jaso duguna piraten irudirik erromantikoena dela eta askok esanen dute haien krudelkeriaren eta basakeriaren apologo bat naizela (kode penaleko delitu berria izanen al da?), baina zer eginen diot: sinpatia diet piratei. Horregatik ez zait batere iraingarria iruditzen sistemaren bozeramaile ofizialek haien pulpitutik hitzetik hortzera *pirata* hitza erabiltzen dutenean.

Multinazional erraldoi eta erakunde uselduei bat-batean kulturaren inguruko kezka piztu zaie, behin eta berriz errepikatuko digute musikariak txirotasunean bizitzera kondenatzen ari dira eskrupulorik gabeko pirata berriak (gazteak, belarritako-dunak eta janzkera zatarrekoak). Haien ordea egile eskubideak eta, batez ere, merkatuaren legeak babesten dituzte.

A! Merkatuarekin egin dugu topo. Agian hor dago kokka, pirata horiek merkatuaren lege guztiak hankaz gora jartzen ari dira, merkatua mugitzen zuen «esku ikusezina» haien atzaparretatik ihes egiten ari da eta hori onartezina da: ez da kultura, hori gutxienez anarkia da. Musikarekin hasi eta auskalo noraino ailegatuko diren pirata hauek, gero jakiak izanen dira, lurra, etxebizitzak... Hondamendia. Horren aurrean filibusterismoa borrokatu.

Zorionez kanpaina handiak egin arren nahiko argi dago zein den pirata eta bulegoko lapur ahalguztidunen arteko desberdintasuna. Eta, dudarik gabe, nahiago dut Long Silverrekin gau osoa eman, ron botila alboan dugula, musika entzuten eta lepotik hartuta marrantatzeraino abesten.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Swintzaileak taldea, gaur, 23:00etan, O'Connors tabernan.
- **Zangoza:** Gaur, Kalean taldea, 23:00etan, Blues tabernan; eta El Efecto Dopler taldea, 00:00etan, Diagonal tabernan.
- **Lakuntza:** Na Tua Man taldea, gaur, gaueko hamabietan, sorgina tabernan.
- **Altsasu:** Anarko, Bol eta Dentera taldeak, bihar, 22:30ean.
- **Uharte:** Samsara taldea, bihar, gaueko ordu batetan, Zona Limite aretoan.
- **Burlata:** 2112 taldea, asteartean, 20:30ean, Black Rose tabernan.
- **Iruñea:** Amaia Zubiria kantaria, asteazkenean, 20:30ean, Erraldioen Txokoan.
- **Iruñea:** Mermaid taldea, ostegunean, 21:30ean, Terminal tabernan.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Bihar, 22:00etan, bertso afaria eginen dute. Arrotxapeko Errotaberri elkarteak, Jon Maia, Igor Elortza eta Unai Iturriagarekin.

ZINEMA

- **Larrasoña:** Bihar, 17:00etan, *Kiriku eta sorgina* filma emanen dute.

ANTZERKIA

- **Ituren:** TEN Pinpilinpaua taldeak *Edozein egunetan* lana eskainiko du, bihar, 21:00etan, udaltxean.
- **Zizur Nagusia:** Kukubiltxo taldeak *Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen* antzezlanaren taularatu du, astelehenean, Erreniega parkean, 19:00etan.
- **Iruñea:** Azkona taldea eta Kiki, Moko eta Flax pailazoak Ziudadelan izanen dira, asteazkenean, 18:30ean.
- **Uharte:** Takolo, Pirritx eta Po-

rrotx pailazoek *Aupa Kintxo* ikuskizuna eskainiko dute, ostegunean, 18:00etan, Toki-Alai pilotalekuan

- **Zizur Nagusia:** Hankagorri taldeak *Trufaldinoren trufak* lana antzetzuko du, ostegunean, 19:00etan, Erreniega parkean.

LEHIAKETAK

- **Barañain:** Haizea Kultur Elkartek argazki lehiaketa antolatuko du. Gaia: euskal kultura. Lanak hila bukatu arte aurkezten ahal dira.
- **Lizarra:** Lizarrako Emakumeen

Asanbladak Maria de Maeztu literatura lehiaketan parte hartzeko seigarren deialdia egin du. 18 urtetik goitiko emakume guzietan parte har dezakete. Tes-tuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita behar dute izan, jatorrizkoak eta argitaratu gabek. Obrak hartzeko epea uztailearen 31n akituko da. Saria 900 eurokoa da.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Mikel Alvarez mendizalearen *Everest, un sueño hecho realidad* argazki erakusketa Mai-


sonnave hoteleko Iruña fotogalerian izanen da, asteartea arte.

- **Iruñea:** Blanca Correderas argentinarraren *Retrospectiva de una mujer inmigrante* erakusketa zabalduko tetegian ikusten ahal da, hilaren 28a arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Udal Ikastolak 25 urte beteko ditu laster. Urtemugako ospakizunak antolatzen parte hartu nahi dutenek astelehenean, 19:00etan, Hegoalde ikastolan eginen den bilerara joan beharko dute.

Asteko erakusketa



● EGUNKARIA

Bernardo Villanueva

Non: Pintzel galerian (Abejeras, 6).

Noiz arte: ekainaren 29a arte.

Ordutegia: lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.